

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Enpresa baten merkatuaren segmentazioa merkatu osoa talde txikiago eta homogeneoetan banatzea da. Talde horiek antzeko ezaugarriak, behar edo portaerak partekatzen dituzte. Segmentazioaren helburua da bezeroen beharrei hobeto erantzutea eta marketin-estrategiak modu eraginkorragoan garatzea. Merkatuaren segmentazioa zer den adierazi ondoren gure enpresaren merkatuaren segmentazioa aztertuko dugu.

Gure enpresaren bezeroak gazteak 12 eta 21 urte tartean nagusiki gurasoengandik independentzia lortzen hasi egiten dutelako eta familiak dira. Horietatik, bezero gehienak; familian arazoak dituzten pertsonak, sozializatzeko zailtasunak dituzten pertsonak, plan ezberdinak egiteko ideiak ez dituzten pertsonak sartzen dira.

Eskaintzen ditugun zerbitzuak, bi merkatu motetan sailkatu daitezke.

Alde batetik merkatu masiboa daukagu. Merkatu mota honen barruan, denbora pasatzeko edozein ekintza mota ezberdinak egin nahi dituzten pertsonak egongo lirateke. Ekintza mota hauek bakarrik, lagun taldearekin edo familiarekin egin daitezke. Horren ondorioz edonolako publikoarentzat, ezaugarri antzerakoak dituzten pertsonentzat, zuzenduta daudenez merkatu masibo bezala sailka daitezke.

Bestetik, merkatu nitxoa daukagu. Arazo pertsonalak, familian arazoak edo familia-bitartekaritza behar dituzten pertsona taldeak dira normalean, kasu batzuetan, banakako arreta ere eskaintzen dugu. Mota ezberdinetako ekintzak eskaini arren, psikologikoki laguntza eskaintzen duen pertsona baten zerbitzuak ere eskaintzen ditugu pasatzen ari diren momentu latz hauetan ulertuta eta aholkatuta sentitu daitezen.

Hori guztia aipatu ondoren, gure merkatuan aktibo mantentzeko, kontsumitzaileekiko harremana zaindu, mantendu eta babestu behar da eta hori egiten badugu gure helburua lortuko dugu denbora luzeko harremanak izatea enpresaren eta bezeroen artean eta nitxoko bezeroak denborarekin eta haien beharrak asetzerakoan merkatu masiboko bezeroak bilakatzea gure enpresarenganako leialtasunagatik eta zerbitzu ona eskaini diegulako. Gure nahia, beraz, bezeroak ahalik eta denbora gehienez gure enpresan mantentzea izango da, hauen leialtasuna bilatzen baitugu.

Beste aldetik, merkatu masiboko bezeroenganako harremana oso garrantzitsua da eta asko zaindu behar dugu horiek direlako gure diru iturri nagusia. Hori lortzeko bi modu nagusi dauzkagu.

Alde batetik, presentzialki mantendu daiteke guganako eta gure bezeroen arteko harremana, eta beste aldetik gure enpresaren eta gure bezeroen arteko harremana gure web orri edo mugikorreko aplikazioan mantendu daiteke, telefonoa edo ordenagailua erabiliz azkenean mota honetako enpresa batean garrantzi handia du gaur egungo gizartera egokitzea eta ezin dugu interneta edo sare sozialak alde batera utzi, munduko errealitatea horrela delako eta indargune bat izan daitekeelako gure enpresarentzat.

Baldintza ekonomikoak kontuan hartuta, eskaintzen ditugun zerbitzuak, ez dira garestiak baina maila baxuko gizarteak jasan ez ditzaketen gastuak dira. Batez ere, hilabetero ordaindu beharreko kuota ordaindu behar dutelako eta kanpoko irteerak edo ekintza ezberdin batzuk burutzeko, diru gehigarri bat ordaindu beharko lukete, ekintza zein den kontuan hartu ondoren.

Baita ere badaude familia batzuk non familia-kide asko direnak eta ezin izango lukete jasan hainbeste gastu hilabetero. Horren ondorioz, familia horiei partaide kopuruengatik deskontuak eskainiko diegu nahi dugulako familiako kide guztiak parte hartzea gure enpresa eskaintzen duen zerbitzuan jende gehiagori iristearen helburuarekin eta familia osoaren ongizatea delako lortu nahi duguna eta horretarako kalitatezko zerbitzua eskaintzea da egin nahi duguna.

Hori guztia aipatu ondoren, esan behar da gure enpresak bi merkatu desberdinetan mugitzen dela, baina merkatu horien bezeroen artean lotura estuak daudela. Horren ondorioz bi merkatuak elkarturik daudela aipatu beharra dago gure helburua delako nitxoetako bezeroak merkatu masiboko zerbitzuko bezeroak bihurtzea denborarekin, eta hori egin ondoren denborazko harreman bat sortzea enpresa eta bezeroen artean.

